



EUSKARALDIAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK!

izenematea.euskaraldia.eus

Oñati Kantuan Ahobizi eta Belarriprestekin

Urriaren 27an

12:00etan, Plazan



**Oñati Kantuan
Ahobizi eta Belarriprestekin**



KANTU ZERRENDA:

- 1. BARATZE BAT**
- 2. BEHIN BETIKO**
- 3. DE TREVILLEN AZKEN HITZAK**
- 4. ERROTA ZAHARRA**
- 5. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**
- 6. GUK EUSKARAZ**
- 7. HABANERA**
- 8. ITURINGO AROTZA**
- 9. JAUN BARUAK**
- 10. KONTRAPAS**
- 11. LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA**
- 12. LIZARGARATEKO TXAMAO**
- 13. MENDIAN GORA**
- 14. SALAMANKARA**
- 15. TOPA DAGIGUN**
- 16. XALBADORREN HERIOTZEAN**
- 17. ZAZPIAK OIHAL BATETIK**





1.- BARATZE BAT

(Hitzak eta Musika: Pier Paul Berzaitz)

Hau da egün eijerra
mila xoriek kanta
ziauri ene erregina
besoak zuri ditizüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin,
amets sekretüenekilan,
liliak egün jauntzi eijerrenetan
mila kolorez dantzan bihotzetan.**

| bis

Gaü beltz ta sakonetik
elkitzen nüzü hoztürrik,
bihotza hain tristerik
zütaz hainen berantetsitürrik.

Baratze bat...

Karrosa bat hor dügü
kanpoan gure aidürü.
Ez gal haboro denbora
hiskor beitago amodioa.

Baratze bat...

Maitarzün berriari
ilargiak dü argi,
emanen deikü aski
gük elkar maita dezagün beti.

Baratze bat...



2.-BEHIN BETIKO

(Hitzak eta musika: Imanol Urbieto)

Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko,
ez dugu etsiko!
Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko
euskaraz eta kitto!

Etxean eta kalean
Berdin-berdin jolasean,
eskolan, lanean,
borrokan eta bakean.
Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik
euskaraz nahi dugu bizi.

**Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian.**

bis



3.- DE TREVILLEN AZKEN HITZAK

(Hitzak eta musika: Pierre Bordazarre “Etxahun Iruri” / Imanol)

Herio latza hüllantzen ari hiz
Dolürik gabe orai nitarat,
Otoizten hait ixtant bat ützi nezak
Ene azken adiuen egitera.

**Hori bera da denen ixtoria
heriuak bardintzen handi txipiak,
zeren ilüsi one bat bera da
Lurr_(ar)en gañeko gure pasajia.**

Ene jauregi pare gabekua,
hi altxatüz banian fiertate,
hitan igaran, denbora gozua
Hain llabür nükila ez nian uste.

O Basabürüa miragarria,
bortüz eta mendiz üngüratürik.
Bostetan nik begixtatü zütiet
ürgullükin terraza huntarik.

Adi-os arren Marie-Maidalena,
zük ingana nezazü lotarik,
ene ondotik baratzen direnez
Izan ez nadiola ahatzerik.



4.- ERROTA ZAHAR MAITEA

(Hitzak: Juan Mari Lekuona / Musika: Xabier Lete/Lourdes Iriondo)

Errota zahar maitea uraren ertzean,
uraren ertzean da basati beltzean:
Negar egiten dezu alea xehetzean,
ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

bis

Zotin sekua dagi errotariak,
itzalitako izar dirdirak
dira niretzat zure begiak.

Izar eder bat dago hor goiko lepuan.
errota zaharra, berriz, erreka zokuan.
Berebiziko pena badaukat barruan:
ezin gindezke bizi elkarren onduan.

bis

Bizitzaren legea nahi det onartu,
halabeharra kuraiez hartu,
berez doana zertan behartu?

Errota zahar maitea uraren ertzean,
uraren ertzean da basati beltzean:
Negar egiten dezu alea xehetzean,
ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

bis



5.- EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

(Hitzak: Xabier Amuriza / Musika: Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?



6.- GUK EUSKARAZ

(Hitzak: Gabriel Aresti / Musika: Joxean Larrañaga “Urko”)

Guk euskaraz | **bis**
Zuk, zergatik ez?

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen, **bis**
eta zuek, denok, |
ur gazi bat **bis**
atera zenuten
handik nekez.

Guk euskaraz, | **bis**
Zuk, zergatik ez?

Orain zuen birtutez zuen indarrez | **bis**
euskara itsaso urdin |
eta zabal bat
izanen da **bis**
eta guria da.



7.- HABANERA

(Hitzak eta musika: Xabier Lete)

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake banilla gozo artean;
Itsaso urrun batetan irudimena galdurik,
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla finak udako arratsaldetan,
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran etsipenaren tamalez.
Gaua zelatan dakusat kontzientzia bilutsik,
badoaz orduz geldiak gogorapenen hegalez.

Jaio ginen, bizi gera ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro kariatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan,
karta bat idatziko_ dut norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz sukartutako ametsetan,
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,
abanikodun mulatak gauari haize egiten
musiken aire nagiek odola erretzen zuten.

Jaio ginen, bizi gera ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro kariatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan,
karta bat idatziko_ dut norbaitek erantzun dezan.

bis



8.- ITURINGO AROTZA

(Hitzak eta musika: Herrikoia)

Ituringo arotza, Erramun Joakin,
hasarre omen zaude zeren degun jakin,
santurik ez daiteke fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta joariak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
"urtu behar dinagu; ekarran santu hori."
"gizona, nora zoaz? bekatu da hori."
"etzionagu erranen sekulan nihori."

Iturringo garaile, Ramuntxo Joakin,
hasarre omen zira zeren dudan jakin.
Konfesa zaite ongi erretorarekin:
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,
egoten ahal zarete hemendik aparte:
baldin arotz horiek jakiten badute,
joaliak egiteko urtuko zaituzte.



9.- JAUN BARUAK

(Hitzak eta musika: Herrikoia / Benito Lertxundi)

Jaun baruak aspaldin
xederak hedatü zütin, (Bis)
txori eije_r bat hatzaman dizü
Paubeko seroren komentin,
orai harekin biziren düzü
aspaldian gogun beitzin (Bis)

Xedera baliz halako
merkatietan saltzeko, (Bis)
Ziberuako aitunen se_mek
eros litzazkie oro,
halako txori eijertto
zunbaiten hatzamaiteko (Bis)

Igaran apirilaren bürían,
armadaren erdian, (Bis)
zü_ntüdan bihotzian,
armak oro eskian;
pre_sent espiritian,
manka besuen artian (Bis)

Jauna maite banaizü,
erraiten düzün bezala (Bis)
kita eza_zü, kita eza_zü
Erregeren zerbütüa
e_ta maita herria,
üken dezadan plazera (Bis)



10.- KONTRAPAS

(Hitzak: Bernat Etxepare/Musika: Xabier Lete)

Garaziko herria |
benedika dadila, | bis
euskarari eman dio | bis
behar duen tornuia. |

Euskara, euskara, |
jalgi hadi plazara. | bis

Bertze jendek uste zuten |
ezin eskriba zaiteien | bis
orai dute porogatu |
enganatu zirela. | bis

Euskara, euskara, |
jalgi hadi kanpora. | bis

Oraindano egon bahiz |
inprimitu bagerik | bis
hi engoitik ebiliren |
mundu guzietarik. | bis

Euskara, euskara, |
habil mundu guzira. | bis



11.- LEPOAN HARTU

(Hitzak eta Musika: Telesforo Monzon / Pantxoa eta Peio)

Gazte bat lurrean aurkitu dugu
Lore gorritz beterik kolkoa
Burdinen atzetik ihesi dator
Euskal gazteriaren oihua
Mutilak eskuak elkar gurutza
Egin ta bultza denak batera
Bidean anaia erortzen bazaik
Lepoan hartu ta segi aurrera

Tria lara tria lara la la tria lara
Lepoan hartu ta segi aurrera. | bis

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik
nor geran, zer geran aitortzeko
ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak
kataiaz loturik ibiltzeko.

Gizonak bagera, jozagun aurrera
gure herriaren jabe egin arte
askatasunaren hegal azpian
kabia egiten ohituak gare
ibiltzen aspaldi ikasia dugu
otsoak eskutik hartu gabe.

Tria lara tria lara la la tria lara...
Lepoan hartu ta segi aurrera. |

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute
isilduko gaituztelakoan,
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz
nere hiltzailearen aurrean.
Mutila etzazu nigarrrik egin
erortzen banaiz gau ilunean,
izar berri bat piztutzero noa
Euskal Herriko zero gainean.



12.- LIZARGARATEKO TXAMAO

(Hitzak: Jerardo Elortza)

I

Hor agertu dan honi
zutik eta tente
ezizenez Txamao
esaten xaue.

Bere bizilekua
da Lizargarate,
egin dittuan gauzak
famaz bete daue.
Harro ta tunante,
batzutan galante,
jan-edan dexente,
beti ase arte;
kaletarrekin dogu (e)
orain tratante.

II

Tratua egin daue,
a zelakotxia!
estudiante horreik
ikaraketia.
Kontuz ibilli deilla
ikasle-jentia,
ezpaldin badau gura
jipoia hartzeia.
Txamao da trastia,
badako artia
eta malizia,
idaurra luzia,
kantoian ipiñi dau (e)kizki-alanbria.



13.- MENDIAN GORA

(Hitzak: X. Amuriza / Musika: Imanol)

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.

*Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza (Bis)*

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joskura
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.

*Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura (Bis)*

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.

*Argitu ezak kopeta
penak eureztat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta (Bis)*

Mundua ez da beti jai
iñoiz tristea ere bai
bainan badira mila motibo
kantatzeko alai.

*Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai (Bis)*



14.- SALAMANKARA (Herrikoia)

Gazte gaztetik aitak ta amak
fraile ninduten nonbratu
bai eta ere Salamankara
estudiante bidaldu.

Salamankara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean
gosez gelditu bainintzen
neska xarmant bat ari zitzaidan
mahainean zerbitzatzen.

Begiak gartsu, ezpainak lore,
enekin aise mintzatzen
aingeru hori ordu berean
ene bihotzean sartu zen.

Hitz erdi batez maite nuela
erran nion belarrira
baina, gaixoa, herabetua
ihes joan zen kanpora.

Ez ahal nauzu, izar ederra,
kondenatzen infernura!
Ez da sekulan ene gogotik
ahaztuko zure itxura.

Aita Jainkoak egin banindu
zeruetako giltzari
azken orduan jakingo nuen
atea nori ireki.

Lehenengo aitari, gero amari,
gero anai-arrebari,
ta azken orduan isil-isilik
nire maite politari

.



15.- TOPA DAGIGUN

(Hitzak: Jon Sarasua / Musika: Oskorri)

Errioxar, Baigorriko,
Bakio nahiz Getariko,
topa dagigun eta bakean
bizi gaitezen betiko.

Umeak arretaz horni,
gazteei hitza eskeini
gaztetxoago eta haurrago
izan gaitezen geroni.

Errioxar, Baigorriko...

Ez uka amonei hitzik,
entzun agureei pozik,
zaharra ez da izandakoa,
luzaroan dena baizik.

Errioxar, Baigorriko...

Jerarkia da lehorra,
harremana emankorra;
errespetuan dago gordeta
emakumeen altxorra!

Errioxar, Baigorriko...



16.- XALBADORREN HERIOTZEAN

(Hitzak eta musika: Xabier Lete)

Adiskide bat bazen benetan bihozbera
poesiaren hegoek sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia
hitzen lihoa iruten bere barnean irauten
oinazez ikasia...ikasia

*Non hago, zer larretan Urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora oroitzapenen gerora
ihesetan joan hintzana (Bis)*

Hesia urraturik libratu huen kanta
lotura guztietatik gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsoarik sakonena
inoiz esan ezin diren estalitako egien
oihurik bortitzena... bortitzena

Non hago....



17.- ZAZPIAK OIHAL BATETIK

(Hitzak: Xalbardin / Musika: Fernando Unsain / Interpretazioa: Eltxegor taldea)

Mundu guztiak aditutzen du
euskaldunaren negarra
alde batera nahiago nuke
ez banintz hemengotarra.

*Enpeinatzea ez bada libre,
alferrik dugu indarra.
hau da txoria gari tartean
goseak egon beharra.*

Antzerki huntan lau pertsonaia
ta jokalaria bakarra
arbolak berak erakusten du
hostoa eta adarra.

Enpeinatzea...

Sutan pizturik darrai oraindik
sugai berriz lehengo gerra
oharkabeen ez zen mintzatu
Txirrita poeta zaharra

Enpeinatzea...

Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik
alde batera hiru soineko
utzirikan lau besterik.

*Guraiziakin bereizi arren
bakoitza bere aldetik
ezagutzen da jantzi girela
zazpiak oihal batetik.*

Oihal bera da gure jantzia
sortu gintuzten unetik,
ez du munduak kemenik sortu
kentzeko gure soinetik.
Guraiziakin...